



COVID-19 KORONABIRUSAREN AURREAN EUSKADIKO GARRAIO PUBLIKOAN AURREIKUSITAKO JARDUKETAK KOORDINATZEKO DOKUMENTUA

1. DOKUMENTUAREN HELBURUA

Dokumentu honen helburua, Euskal Autonomia Erkidegoko garraio publikoaren sarea osatzen duten erakunde guztiei Koronabirusari edo COVID-19ari dagokionez Euskadiko Garraio Agintaritzak (EGA) identifikatu dituen neurriei buruzko informazioa ematea da, horrela, gaixotasun horrek dakartzan erronka espezifikoari erantzuteko, une oro garraio-zerbitzu publikoen jarraipena ahalbidetuz.

2. EGOERAREN KUDEAKETARAKO AHOLKUAK

Komenigarria da helburu nagusi hauek izango dituen lantalde espezifiko eta diziplina anitzekoa sortzea garraio publikoko enpresa eta erakunde bakoitzaren barruan:

1. COVID-19aren ondorioz euren esparruan sortzen diren kontingentzia guztiak kudeatzea eta gauzatzea.
2. Egoeraren bilakaeraren arabera egokitzat jotzen diren neurriak eta jarduketan planak aztertzea, analizatzea eta proposatzea, Osakidetzaren eta Sailen arteko Mahaiaren jarraibideen arabera.
3. EGArekin lankidetzan aritzea, beharrezkoak diren kontingentzia-planak ezartzeko eta kudeatzeko.

3. PREBENTZIO NEURRIAK

Hartzen diren prebentzio neurriek lotura estua izan beharko dute, nola ez, koronabirusak erakusten dituen ezaugarriekin; izan ere, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, arnas birus bat da, kutsatuta dagoen pertsona batekin kontaktuan egonda hedatzen dena, ez tul edo doministiku egitean sortzen diren arnas tanten bitartez, batez ere. Tanta horiek arnastu daitezke edo eskuak edo/eta gainazalak kutsa ditzakete.

Aurrera eramango diren prebentzio neurriek erabiltzaileak eta erakunde bakoitzean lan egiten duten pertsonak hartu beharko dituzte kontuan; ahaleginak egingo dira haiek babesteko, eta balizko absentismo-egoerei aurre egiteko prestatuko dira.

4. ERABILTZAILEEI ZUZENDUTAKO PREBENTZIO NEURRIAK

4.1. INFORMAZIO NEURRIAK

Garraio publikoa, Euskal Osasun Zerbitzuak (Osakidetza) kartelen, bideoen eta abarren bidez ematen dituen jarraibide guztien hedapenerako baliabide izan behar da, herritar guztiei kutsatzeak saihesteko neurriak eta kutsatze posibleen aurrean jarduteko planak helarazteko.

Informazioa transmititzeko adibideetako batzuk hauek dira:

- Kartelak geltoki eta geraleku guztietako erakus-guneetan.

- Irudiak eta bideoak unitateetako, geltokietako eta geralekuetako pantailetan.
- Kartelak unitate barruetan.
- Mezuak APP guztietan, webgune korporatiboetan eta Sare Sozialetan.

4.2. ERREFORTZU NEURRIAK INSTALAZIOEN ETA UKIPEN GUNEEN GARBIKETARAKO

Garbiketarekin erlazionatutako errutinak egokitu egin beharko dira, eta arreta handiagoa jarri beharko da asko ukitzen diren gainazalen eta puntuen desinfekzioan, eta hondakinak kentzean.

Alde horretatik, erakundeek ohiko errutinen egokitzapenerako maila desberdinak identifikatu beharko dituzte. Maila horiek intentsitate-maila txikienetik handienera joan beharko dute, arrisku-mailaren arabera egoera kontuan izanda.

Adibide gisa, une honetan garbiketaz arduratzen diren pertsonen eta enpresei eskatu beharko zaie arreta handiagoa jar dezatela asko ukitzen diren puntu komunak desinfektatzean, eta baita hondakinak kentzean ere, bai unitate guztietan, bai geltokietan eta geralekuetan, orain arte ohiko garbiketa arrunta jaso duten eremuetan, hain zuzen ere.

Zehazki, hauetan zentratu beharko da desinfekzioa: heldulekuetan, eskudeletan, mugikortasun urria duten pertsonen segurtasun-zintetan, eta irekierako eta bestelako aginteetan, produktu desinfektatzaile espezifikoak erabiliz.

5. LANGILEEI ZUZENDUTAKO INFORMAZIO ETA PREBENTZIO NEURRIAK

5.1. INFORMAZIO NEURRIAK

Euskadiko garraio publiko zerbitzuak ematen dituzten operadoreetako langileei ohiko komunikazio-bideen bitartez emango zaie informazioa, eta alderdi soziala ere inplikaturik egongo da Osasun Sailetik herritarrei oro har ematen zaizkien aholkuetan. Aholku horiek, lehen aipatu diren kartelen eta gomendioak dituzten bideoen bitartez emango dira.

Informazio neurri horiek berehala hartu behar dira, COVID-19 Euskadin eragiten ari den larritasun maila edo eragina bat edo beste bada ere.

5.2. PRESTAKUNTZA NEURRIAK

Aurreko lerroaldean bezala, prestakuntza neurri horiek berehala hartu beharko dira. Prestakuntzari buruzko aholkuak garraio publikoko sare guztietarako egokiak dira, gaur egun duten eragin maila bat edo beste bada ere:

- Lehenetsuna du erakundearen barruan funtsezko egitekoak identifikatzea.



- Komenigarria da langileen kalifikazioen, lizentzien eta abarren inbentarioa egitea, lanpostu kritikoak indartu ditzaketen langileak identifikatzeko.
- Babesteko eta garbitzeko funtsezko ekipoen eta horniduren stocka eta eskuragarritasuna berrikusi behar dira, eta haien banaketa eta birkarga/berrerosteta planifikatu.
- Langileei ematen zaien informazioa komunikazioaren plangintzaren funtsezko elementua da.
- Osasun publikoko agintari arduradunen jakinarazpenak jarraitu behar dira, azken aholkuei buruzko informazioa izateko.

5.3. NORBERAREN BABESERAKO NEURRIAK

- Neurri orokor gisa, langileek higie pertsonaleko oinarrizko arauak ezagutu behar dituzte, eskuak modu erregularrean garbitzea, doministiku eta eztula ukondoan egitea eta paperezko eskuoihalak erabiltzea, besteak beste. Informazio buletinek eta kartelek eskuragarri eta ikusgai egon behar dute instalazio guztietan.
- Garbiketako langileek eta ohiko lekuek (aldagelak, bilera-gelak, bulegoak, etab.) eskuetarako desinfektatzaileak eta paperezko zapiak izan behar dituzte.
- Litekeena da garbiketako errutinak egokitu behar izatea, eta asko ukitzen diren azalerak eta puntu komunak desinfektatzeko eta hondakinak kentzeko arreta egokitu behar izatea. Txanden artean garbitzeko aukerarik ez dagoen lantokietan, langileek beharrezko baliabideak eduki beharko dituzte, eta hondakinak kentzeko eta azalerak desinfektatzeko ardura izan behar dute, beraien errutinaren barruan.

5.4. KOORDINAZIOA GAIXOTASUN ARRUNTAREN ONDORIOZKO ABSENTISMOAREN KONTROLERAKO ARDURADUNEKIN

Gaixotasun arruntaren ondoriozko absentismoa kontrolatzeko arduradunekin adostu beharko da, halakorik balego, patologia horrekin erlazionatutako sintomak izateagatik aldi baterako ezintasun egoeran dauden langileekin harremana telefonoz eta aurrez aurrekoa ez den beste modu batean egitea, kutsatze posibleak saihesteko.

Hartu beharreko neurri horiek, COVID-19a Euskadin katalogatuko den larritasun edo eragin mailaren arabera eguneratu eta egokitu ahal izango dira.

Eranskina: Informazio kartelak

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 6an